

## Nutrizio behar espezifikoak 413-1

**B**ereziki aintzat hartzen ditugu gaixotasunak direla-eta sortzen diren elikadurako behar espezifiko batzuk, hala nola zeliakia, alergiak eta intolerantziak. Lan egiten dugu gure produktuen eskaintza segurua, nahikoa erosketa arrunt baterako eta prezio egokikoa izan dadin haientzat. Horregatik, harremanetan gaude gaitz horien harira sorturiko erakunde eta taldeekin, hala nola Espainiako Zeliakoen Elkartearen Federazioa (FACE) eta Espainiako Diabetesaren Federazioa (FEDE). Horri esker, lehen eskutik jakin ditzakegu haien eskariak eta kezkek, eta gure elikagai sorta zabal dezakegu haien eskariei behar bezala erantzuteko. Gainera, elkarlanean aritzen gara erakunde horiekin gaixotasunari ikusgarritasuna emateko eta hari buruz kontzientziatzeko, sentsibilizazio-kanpainen bidez.

2019an, berritu egin dugu Lankidetza Hitzarmena Euskadiko Zeliakoen Elkartearekin, eta lankidetza-hitzarmen berri bat sortu Errioxako Zeliakoen Elkartearekin. Guztira, 2019an elkarte horietako 1.630 bazkidek etekina atera diote Hitzarmenei, tartean **% 20ko deskontua eskaintzen diena, glutenik gabe egindako 200 erreferentzian.**

Gaur egun, kolektibo honen behar espezifikoekin dugun gure konpromisoa medio, lanean ari gara glutenik gabeko gure produktuen eskaintza hobetzeko, bai gure marka propioan baita beste fabrikatzaileen markatan ere. Une honetan, **3.000 produktu inguru ditugu glutenik gabe;** haietatik, 2.400 hainbat markatakoak dira, eta 550, berri, gure markakoak.

Era berean, dagoeneko badira hamar urte, alergenoi buruzko 2220/2004 Errege Dekretua betetzeaz gain, informazio gehigarria eskaintzen dugula etiketetan ohartarazteko aparteko mezuekin, alergenoen arrastoak egon daitezkeela jakinarazteko. 2019an, 550 produktu baino gehiago zenbatu ditugu, marka propioan, glutenik gabekoak; beste 98 produktu, laktosarik gabekoak; 35, esnerik gabekoak; eta 5, arrautzarik gabekoak.

